

SUKINET: INTRANET teknologiaren bitartez lan-arriskuen prebentzio eta segurtasunerako sistema eta kalitatea ziurtatzeko sistemaren dokumentazioa kudeatzea



Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. SUKIA TALDEkoa da eta 1964/10/01ean sortu zen. Beraren jarduera mota orotako obren Eraikuntza da. Gaur egun, hark 70 enplegatu baino gehiago ditu eta erregio-eremu batean lan egiten du (EHAE, Nafarroa eta Akitania).

Motibazioa

1996an, SUKIA taldeko beste enpresa batean ezarri zen ISO 9000 arauaren arabera kalitatea ziurtatzeko sistema bat. Esperientzia horren bitartez jakin genuen ezen horrelako prozesuetako gakoetako bat dokumentazioa kudeatzeko bizkortasuna zela (bertsio-aldaketen hedapena bereziki). Horregatik, Kalitate proiektuaren hasieratik Construcciones Sukia Eraikuntzak sozietatean arazo hori ezabatzeko gai den tresna bat bilatzen dugu.

Enpresa eraikitzaile batek geografikoki eta denboran banatuta dauden lan-zentro asko kudeatzen ditu. Hori dela eta, ezinbestekoa da nagusia den eta, aldi berean, kalitate- eta segurtasun-sistemen dokumentazioa behar duten obretako langilerik gehienek errazki atzitu ahal duten lan-erreferentzia bat ezartzea. Horren ondorioz, egoki iruditu zitzaigun agiri-base zentral edo nagusia egin eta INTRANET teknologiaren bitartez hedatzea.

Garapena

- 1. fasea (urtebetekoa): prozedurak, formularioak, eskuliburuak eta abar egin eta prestatzea, testu-prozesadoreak lagunduta. Ereduzko obretako agiriaren frogak. Hori kalitate-sistemei buruzko aholkularitza baten euskarriarekin egin da barnean.
- 2. fasea (3 hilabetekoa): WORD agiri-basetik HTLMra pasatzea. Azken base hori Interneterako garapenetan espezializatutako enpresa bati azpikontratatu zaio. Fase honetan sartuta dago gure sare-administratzailea sistema artatu eta eguneratzeko prestatzea.
- 3. fasea (6 hilabetekoa): langileak (guztiak, obra-langileak izan ezik) SUKINET erabiltzeko prestatzea. Kalitate- eta segurtasun-sistemaren ezarpen orokortua.
- 4. fasea (2 hilabetekoa): AENOR-ek gure ISO 9002 kalitate-sistema auditoretzaren bitartez baliozkotu eta, gero, enpresaren erregistroa lortzea.

Proiektu honetan izan ditugun zailtasun nagusiak honakook izan dira:

- Obra-ordenagailuen Interneterako konexio garestia.
- Bitarteko aginteen tresna informatiko baten erabilerari begirako oinarritzko prestakuntza urria.
- %100ean fidagarria ez den Intranet zerbitzariaren babesa.

Emaitzak

- Kalitate-sistema ezartzeko denbora laburtzea.
- Agiri-kudeaketa guztiz kontrolatzea.
- Formularioen fotokopiak ezabatzea, eta obretako ondorengo banaketa.
- Langileen buru-prestakuntza eta enplegatu berrien integrazio lagundua.

SUKINET: Gestión de la documentación del sistema de aseguramiento de la calidad y del sistema de seguridad y prevención de los riesgos laborales mediante la tecnología INTRANET

Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. pertenece al GRUPO SUKIA y nace el 01/10/64, siendo su actividad la Construcción de todo tipo de obras. Actualmente cuenta con más de 70 empleados y trabaja en un ámbito regional (C.A.P.V, Navarra y Aquitania).

Motivación

En 1996, la experiencia de la implantación en otra empresa del grupo SUKIA, de un sistema de aseguramiento de la calidad según normas ISO 9000, nos enseñó que una de las claves en un proceso de este tipo es la agilidad de la gestión de la documentación (en especial la difusión de los cambios de versión). Por esta razón, desde el inicio del proyecto Calidad en Construcciones Sukia buscamos una herramienta que sea capaz de eliminar ese problema.

Una constructora gestiona múltiples centros de trabajo esparcidos geográfica y temporalmente, con lo cual es indispensable establecer una referencia de trabajo que sea a la vez central y accesible de forma sencilla por la mayoría del personal de las obras necesitado de documentación del sistema de calidad o de seguridad. En consecuencia nos pareció oportuno formalizar una base documental central informatizada y difundirla mediante la tecnología INTRANET.

Desarrollo

- Fase 1 (1 año): Confección de los procedimientos, formularios, manuales, etc. apoyándonos en el procesador de texto. Prueba de los documentos en obras piloto. Realizado internamente con el soporte de una consultoría de sistemas de calidad.
- Fase 2 (3 meses): Traspaso de la base documental WORD a HTLM, subcontratado a una empresa especializada en desarrollos para Internet. En esta fase se incluye la formación en el mantenimiento y puesta al día del sistema por nuestro administrador de red.
- Fase 3 (6 meses): Formación del personal (todos menos los operarios de obra) en la utilización de SUKINET. Implantación generalizada del sistema de calidad y seguridad.



- Fase 4 (2 meses): Validación mediante la auditoria de nuestro sistema de calidad ISO 9002 por AENOR y posterior consecución del registro de empresa.

Las principales dificultades encontradas en este proyecto han sido:

- Conexión a internet costosa de los ordenadores de obra.
- Formación básica deficiente del uso de una herramienta informática de los mandos intermedios.
- Protección del servidor Intranet no fiable al 100%.

Resultados

- Reducción del tiempo de implantación del sistema de calidad.
- Control total de la gestión documental.
- Eliminación de las fotocopias de formularios y posterior reparto en las obras.
- Auto-formación del personal e integración de los nuevos empleados facilitada.